

Ordiziako Udala

2018IOSB0003

Ordizian, **2018ko martxoaren 22an**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, **Ohiko deialdian**, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesús Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea


KONTU-HARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jauna

EGUNEKO GAI-ORDENA

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2018ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.-Otsaileko Alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 3.- Otsaileko kontratazioei dagozkien Kontu-hartzailearen ingerak.
- 4.- Udaltzaingoaren Antolakuntza- eta Funtzionamendu-Araudiaren hasierako onarpena.
- 5.-. Alde Zaharra Eraberritzeko Plan Bereziaren aldaketa puntualaren behin betiko onarpena, Elkano kaleko 10. zenbakiko B05/06 EUari dagokiona.



Ordiziako Udala

2018IOSB0003

- 6.- Ordiziako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren gainekoa.
- 7.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak banatzeko irizpideen onarpena.
- 8.- Aisialdiko baratzak erabiltzeko Araudiaren hasierako onarpena.
9. 2018ko aurrekontu luzatua aldatzeko proposamena inbertsioak, kapital-transferentziak eta konpromiso-kreditua gehitzeko.
10. Ordiziako udalaren, San Jose Egoitzako EAren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Hitzarmena San Jose zaharren egoitzaren kudeaketa eskualdatzeko.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- .- Ordizia Orainek aurkeztutako mozioa, II. Errepublika aldarrikatu zenetik 87 urte bete direlako.


GALDE-ESKAERETAN AZTERTUTAKO GAIAK


- .- Planetaren eguna

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19:00etan

AMAIERA ORDUA: 20:30ean





Lehendakariak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez.

1.- 2018ko martxoaren 1ean egindako ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2018ko martxoaren 1eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Ezenarro jna

Esan du aktan hainbat zuzenketa egin nahi dituela.

Euskarazko bertsioaren 27. orrialdean, eguneko gai-ordenaren 11. puntuan, bere interbentzioan hau jasotzen da: bi finantzazio iturri zeudela jakinarazi zitzaizela, Aldundia eta Eusko Jaurlaritza; eta harrিতa geratu zela bi egun lehenago jakin zuenean bigarren finantzazio iturria ez zela Europa, EREIN programa baizik. Esan du parentesi artean Eusko Jaurlaritza agertu beharko litzatekeela.

Halaber, esan du, interbentzio berean, hurrengo paragrafoan, hau jasotzen dela: “Alkateari galdetzen dio ia mantendu dezakeen asteartean esan zuena, hau da, finantzazioa osoa izango zela eta laguntza hori lortzeko garrantzitsua zela kalitatezko proiektu bat egitea”. Gaineratzen du hau ere esan zela: laguntza lortzeko aparkalekuaren proiektua bakarrik aurkeztu behar zela.


27. orrialdean ere, bere hurrengo interbentzioan, sailburuordeak hau esan zuela jasotzen da: aparkalekuaren proiektua ez dela lehentasunezkoa deialdiaren xede gisa eta horregatik, proiektu on bat idaztea beharrezkoa dela. “deialdiaren xede gisa” ñabardura gehitu behar da.

Azkenik, orrialde berean eta interbentzio berean, Ezenarro jaunak esan du “hau ez da azken aukera, Alkateak esaten duen bezala” jakinarazten duenean, paragrafoa bukatzen dela esanez “beraz, laguntzak lortzea zaila ikusten duela”. Esan du azken esaldi horri “lan on bat egiten ez bada” gehitu behar zaiola.

Sukia andreak

Esan du 11. puntuan ere, interbentzioen amaieran eta bozketa baino lehen, adierazi zuela interbentzioak osoak izateko osoko bilkuraren grabakera jo beharko litzatekeela.

Eskatutako zuzenketak egiten dira.



Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Hortaz, Lehendakari jaunak akta aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

2.- Otsaileko Alkatetzako dekretuen berri ematea.

Proposamena

Otsaileko Alkatetzako dekretuen berri ematea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.




Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

3.- Otsaileko kontratazioari dagozkion Kontu-hartzailearen ingerak.

Idazkaritza sailetik honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote Kontu-hartzaileari:

Sozietatearen izena	Kontratuaren xedea	Kontratuaren data	Beteazte epea	Luzapenak	Kontratuaren prezioa	2016an gastuta
Gesmunpal	Nahitaezko	03/11/2003	03/11/2007	---	Aldakorra	30.943,58




Ordiziako Udala

2018IOSB0003

	diru-bilketa					
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur Etxeko atezaina	15/04/1986	Mugagabea	Urtez urteko luzapena	Zenbatekoa 2016an: hilero 2.948,84 + BEZ	42.817,20
Landarri S.L.	Hilerriko zerbitzua	10/03/2005	10 urte 2015/03/10	Dekretu bidezko luzapena esleipen berria egin arte Epemuga: 2016/03/12	Gehieneko prezioa 18.000 euro + BEZ	21.937,30
Eulen Sociosanitarios	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	24/12/2010	Gehienez 5 urte 2015/12/24	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Tarifen araberakoa	140.409,78
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin eremu irekian Gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen zerbitzu publikoa	27/04/2012	Gehienez 4 urte 27/04/2016	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Kontratua ren prezioa 60.000 euro BEZ barne Prezioa 2016an: 65.529 euro BEZ barne	63.806,72
ERRO KOOP. Elkartea Leire Andia	D'elikatuz zentroaren kudeaketa	24/07/2012	Gehienez 4 urte 27/04/2016		Kontratua ren prezioa 90.000 euro BEZ barne	102.755,36
INDOK	Munigexen kudeaketa	Kontratu gabe	Urtekoa		Prezioa 2016an: 12.196,80 euro BEZ barne	11.243,96

<https://munigex.net/r/0/76/AAAA4BD28>



LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Kontratu gabe	Kontratua ren prezioa 17.061 euro BEZ barne	24.407,28
AINARA ORMAETX EA HARTO	Immigrazio Zerbitzua	01/01/2016			21.773,95 euro BEZ barne	21.966,02
Alotza Haurtzaind gia Guraso Elkartea	Udal Haur- eskolaren kudeaketa zerbitzua	01/09/2009	Gehiene z 6 urte 2009/09/01		Kontratua begiratu. Tarifak+s ub+Udal zerbitzu kontratua 33.500 eurokoa	388.104,44

a) Aplikagarria zaizkion arauak:**a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.**“23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea.”

1. Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.


Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian**, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“26. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

k) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.



a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.**

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatuak erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.


3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bategina:



“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailera Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailtzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.


Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailtzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

<u>ERREPARO FAKTURAK</u>	<u>MARTXOA</u>	
HORNITZAILEA	FAKTURA ZBKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/03	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	17	38.000,00
INDOK	1085	1.212,06
LAIA, S.COOP.	18/11	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	003U/18	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	86	1.814,49
EULEN, S.A.	3171762	13.273,82
EULEN, S.A.	3175208	7.819,89
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3516628	5.632,85
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	15	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800127	1.604,34



LANDARRI, S.L.U.	1800136	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800137	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800138	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800139	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800140	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800141	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800142	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800143	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800144	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800145	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800146	80,08
	GUZTIZKOA	85.485,98

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Eulenen kasuan (Eraikinen garbiketarako kontratuan) urtarrilaren 15tik aurrera sortzen diren fakturak kontratu eguneratuari dagoki, beraz hemen aipatzen direnak aipatutako dataren aurreko fakturak dira.

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Ordiziako Kontu-hartzailea.- Miguel Zubizarreta Elicegui

2018/252. DEKRETUA


HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2018ko martxoaren 16an egindako 03/2018 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.

- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.

- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagorekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.

- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariek pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.



Ordiziako Udala

2018IOSB0003

- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.

- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:


HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

HORNITZAILEA	FAKTURA ZBKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/03	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	17	38.000,00
INDOK	1085	1.212,06
LAIA, S.COOP.	18/11	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	003U/18	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	86	1.814,49
EULEN, S.A.	3171762	13.273,82
EULEN, S.A.	3175208	7.819,89
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3516628	5.632,85
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	15	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800127	1.604,34
LANDARRI, S.L.U.	1800136	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800137	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800138	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800139	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800140	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800141	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800142	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800143	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800144	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800145	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800146	80,08
	GUZTIZKOA	85.485,98

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

ALKATEA



Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:
Bat ere ez.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

4. Udaltzaingoaren Antolakuntza- eta Funtzionamendu-Araudiaren hasierako onarpena.

Proposamena

Udaltzaingoa erregulatuko duen araudi berria onartzeko espedienteari hasiera eman zaiola jakinarazten da. 58/2015 Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoari jarraiki, non Euskadiko udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen diren. Helburua, indarrean dagoen legeari jarraituz, jarduera eta funtzionamendua zuzenduko duten irizpideak ezartzea da.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalarari dagokio tokiko ordenantzak onartzea.


Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jendaurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 133. artikulua ezartzen duen bezala, lege-proiektu edo araudia egin aurretik, Udaletxeko web orriaren bitartez galdeketa publikoa egingo da eta bertan araudiarekiko eragin zuzena izango duten subjektuen eta erakundeen iritzia jasoko dira.

Hala eta guztiz ere, 133. artikulua, laugarren paragrafoan, zehazten du galdeketa eta informazio ematearen tramitea alde batera uzteko aukera dagoela. Beti ere, Administrazioaren edo horren menpeko edo horri lotutako erakundeen aurrekontu edo antolamendu arauak direnean. Azken kasu hori da dagokiguna eta horregatik utzi da alde batera.

2018ko martxoaren 14ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:



AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Udaltzaingoaren Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiaren hasierako onarpena ematea (dagokion testua erantsita dago).**
- 2.- Araudi hori jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialean iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.**
- 3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Azaltzen du Araudia onartzeak arategira egokitzea dakarrela eta horrek udaltzaingoaren antolakuntza eta funtzionamendua ezarriko dituen araudi bat onartzera behartzen duela.

Halaber, esan du, ondorengo momenturen batean Lanpostuen Zerrenda eta Plantila Organikoaren egokitzapena onartu beharko dela Ofizialorde lanpostua barne hartzeko. Izan ere, gure biztanle eta langile kopurua kontuan hartuta, hori da Udaltzainburuak eduki behar duen lan-kategoria.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.



5.- Alde Zaharra Eraberritzeko Plan Bereziaren behin betiko onarpena, Elkano kaleko 10. zenbakiko B05/06 EUari dagokiona.

Proposamena

Alde Zaharra Eraberritzeko Plan Bereziaren Aldaketa Puntuala onartzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Elkano kalea 10 "B 05/06" Exekuzio Unitateari dagokiona, Jose Mari Aseginolaza arkitektoak idatzia eta Aisape 04 SL enpresak sustatua.

2017ko abenduaren 12ko 1010 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren hasierako onarpenarekin jendaurrera zabaldu zen legeak ezarritako epean eta moduan, hau da, Udaletxeko iragarkitaulan, 2017ko abenduaren 19ko GAOko 240. zenbakian eta 2017ko abenduaren 19ko egunkarian argitaratutako iragarki bidez, eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak, 2018ko urtarrilaren 19ko datarekin, aldeko txostena bidali zuela, estalki-isurialdeen planoen tamainei dagokien hainbat oharrekin.

Txostena, 2018ko urtarrilaren 31ko datarekin, zuzenduta aurkeztu da, Eusko Jaurlaritzaren txostenean zeuden oharrei jarraituz.

2018ko otsailaren 14ko Obra eta Hirigintza Delegazioaren aldeko erabakia ikusita, eta behin betiko onartu beharreko 2018ko otsailaren 8ko Udal Arkitektoaren txostena ikusita, 2018ko martxoaren 14ko Osoko Bilkurarako Gaiari Batzordeak ondorengo erabakia hartzea proposatu du:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Alde Zaharra Eraberritzeko Plan Bereziaren Aldaketa Puntualaren txostena, Elkano kalea 10 "B 05/06" Exekuzio Unitateari dagokiona eta 2018ko urtarrilean zuzendutakoa, behin betiko onartzea.

2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onespenezko akordioa argitaratzea, testu arauemaile osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea hamar eguneko epean.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak


Azaltzen du zein den hirigintza-dokumentuaren onarpenaren xedea.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

<https://munigex.net/r/0/76/AAAA4BD28>



Ordiziako Udala

2018IOSB0003

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Dubreuil jaunak

Esan du ez duela bozkaten gaiarekiko zuzeneko interesa duelako.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

6. - Ordiziako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren gainera.

Proposamena

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORDIZIAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO

I.- Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

II.- Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

III.- Nahiz eta, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera, zerbitzu hori eskaintzea udalen eskumenekoa izan, Gipuzkoako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adostu dute, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzea 2017-2019 aldian.


IV.- Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileentzako arreta hobetzeko, eta eskumen banaketarantz hurbiltzeko xedez, bi administrazioek bidezkotzat jo dute lankidetzaren hitzarmen berri bat sinatzea, zerbitzuaren finantziario sistema arautze aldera.

V.- Bi administrazioen helburua da Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzen jarraitzea, baina Foru Aldundiaren parte hartzea zehaztuko da denborari dagokionez, hitzarmen honen III. eranskinean jasotako erabakiak ezarritakoari jarraituz.

2018ko martxoaren 14ko Plenonarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako erabakia hartzea proposatzen da:

<https://munigex.net/r/0/76/AAAA4BD28>

14



AKORDIO PROIEKTUA

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren arteko hitzarmenaren izenpetzea onartzea, honekin batera doan testuaren arabera, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua batera finantzatzeko.

2.- Alkate - Lehendakariari ahalmena ematea sinatu beharreko agiri guztiak sina ditzan.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Hitzarmena izenpetzearen xedea zein den jakinarazi du. Etxez etxeko laguntza zerbitzua, gizarte-zerbitzuetako eskumenen banaketaren barruan, udal eskumena izatera pasatzen da eta hitzarmenak zerbitzu horien kofinantzaketa jasotzen du.

Dubreuil jaunak

Esan du hori, eskumenen eskualdatzean, urrats bat gehiago ematea dela.

Etxez etxeko laguntza zerbitzu hobe bat abian jartzeko behar diren urratsak ematen ari dira eta Aldundiak proposatutako hobekuntzak ezartzen doazen heinean, kalitate handiagoa izango duen eta lehiakorragoa izango den zerbitzu bat emango da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.



7. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak banatzeko irizpideen onarpena.

Proposamena

Eusko Jaurlaritzak 2017ko martxoaren 8ko AGINDUAN, 2017. urtean Gizarte Larrialdietarako Laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak finkatu zituen.

2018 urterako irizpideak eta kopuruak finkatzeko presa dela eta, eta Eusko Jaurlaritzatik bidali den oharra esanez, ez dela aldaketarik espero aurten eta Aginduaren izapideak ezarritako prozedura jarraitu behar duenez oraindik ez dela onartu.

2018ko martxoaren 14ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Ondorengo irizpideak ONARTZEA proposatzen da 2018ko Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Esan du proposamenarekin lortu nahi dena Gizarte Larrialdietarako Laguntzen esleipen irizpideak onartzea dela.

Dubreuil jaunak


Esan du, banaketa hori egiteko irizpideak, orain arte, irizpide teknikoetan oinarrituta egiten zirela eta ez zirela Osoko Bilkuran onartzen. Laguntza horien artean, adierazgarria da familientzako arreta programa, mikrokredituak... etab.

Kontzeptu batzuetan, etxebizitzaren alokairuan adibidez, zerbait murrizten da eta beste batzuetan, oso indartsua den energia kontsumoari dagokiona adibidez, mantendu egiten da.

Sukia andreak

Uste du hipoteken beharrei dagokienez, beste modu batean jardun beharko litzatekeela; izan ere, uste du, jabetzari zuzendutako laguntzak ez liratekeela itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izan behar (funts galdurako laguntzak).

Proposamenaren alde bozkatuko dute, baina uste du beste norabide bat hartu behar dela.



Dubreuil jaunak

Erantzuten du gastu kopuru handia alokairua dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

8. Aisialdiko baratzak erabiltzeko Araudiaren hasierako onarpena.

Proposamena

Hasitako espedientearen berri ematen da, ORDIZIAKO BARATZE PARKEAn dauden lurzatiaren erabilerarako, gozamenerako eta ustiapenerako bete behar diren baldintzak erregulatzeko araudi bat onartzea xede duena; baita horien esleipenerako prozesua, baratzak lantzeko jarduera eta erabiltzaileen erantzukizunak eta betebeharrak arautzea xede duena ere.

Hori guztia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz, eta era berean, herritarren heziketa eta ingurumen baloreak sustatuz, bizimodu aktibo baten alde eginez.

Halaber, helburua ere bada oinarriak finkatzea eta baita izaera soziala izango duen proiektu iraunkor baten garapena bultzatzea ere, marko egoki bat sortuz herritarren arteko harremanak sustatzeko.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalarari dagokio ordenantzak onartzea.


Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena.

b) Jendaurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.

c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

<https://munigex.net/r/0/76/AAAA4BD28>



Horrez gain, lege-proiektu edo araudia egin aurretik, 2018ko otsailaren 14an, Udaletxeko web orrian argitaratu da izapidea betetzeko espedientearen hasiera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 133. artikulua ezartzen duen bezala.

Horretarako eman den epean ez da ez iradokizunik, ez oharrik, ez alegaziorik aurkeztu.

2018ko martxoaren 14ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- ORDIZIAKO BARATZE PARKEAn dauden baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko araudiari hasierako onarpena ematea (dagokion testua erantsita dago).

2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Aranburu jaunak

Azaldu du obrak ia-ia bukatuta daudela eta orain egin behar dena erabiltzaileei lursailak nola esleitu zaizkien erregulatuko duen araua onartzea dela, baita esleipenarako baldintzak erregulatuko dituen ere.


Azaltzen du nolakoa izan den araudiaren prestaketa prozesua, aldez aurreko kontsulta-fasea web orrian eta alegazioak eta erreklamazioak egiteko hilabeteko jendaurreko erakusketa. Azken horren ostean, alegaziorik ez balego, onarpena automatikoki behin betikoa izango ditzateke, osoko bilkuran akordio berri bat hartzeko beharrik gabe.

Eguren jaunak

Aranburu jauna zoriondu du egindako lanagatik.

Dubreuil jaunak

Esan du araudiaren edukiarekin ados dagoela eta bere bozka proposamenaren aldekoa izango dela.



Aranburu jaunak

Araudiaren lanketan Dubreuil jaunaren lankidetzaz nabarmendu du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

9.- 2018ko aurrekontu luzatua aldatzeko proposamena inbertsioak, kapital-transferentziak eta konpromiso-kreditua gehitzeko.

2018rako inbertsioak apenas jasotzen dituen aurrekontu luzatuaren aurrean, aurrekontura ondoren aipatzen diren inbertsioak, kapital-transferentziak eta konpromiso-kredituak gehitzeko eztabaida eta banan-banako bozketa proposatzen da.

2018ko otsailaren 14ko osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen aldeko irizpenarekin, proposatu da onartzea honako


AKORDIORAKO PROIEKTUA

• Jarraian aipatzen diren inbertsioak, kapital-transferentziak eta konpromiso-kredituak banan-ban onartzea, honela finantzaturik:

1. Aurrezki garbiarekin
2. Gastu orokorretarako altxortegiko soberakinarekin
3. Zorpetuz

Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea 15 egunez jendaurrean egon dadin. Epe hori igarota, alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko da.


2018ko INBERTSIOAK		
1 601.01.132.00.0201 2018	SEMAFOROA ETA OINEZKOEN PASABIDEA	25.000,00



Ordiziako Udala

2018IOSB0003

1 624.01.132.00.0201 2018	MOTO BERRIA	6.000,00
1 624.02.132.00.0201 2018	SEINALEAK GARRAIATZEKO ORGA	2.000,00
1 625.01.132.00.0201 2018	TELEBISTA MONITOREA	300,00
1 623.04.133.00.0202 2018	UDALTZAINEN KOMUNIKAZIOAK	1.500,00
1 643.01.133.00.0202 2018	ANALISIA	400,00
1 622.02.151.00.0211 2018	ERAIKIN PUBLIKOETAKO AUTOBABES PLANAK ETA JARDUERA	15.000,00
1 623.02.151.00.0211 2018	UDALETXEKO LANGILEEN ORDUTEGIA KONTROLATZEKO SISTEMA	4.840,00
1 601.01.152.10.0211 2018	SAN JUAN URBANITZEKO KUOTAK	106.271,62
1 601.06.153.00.0221 2018	ZORU IRRISTAKORREN TRATAMENDUA	20.000,00
1 601.01.153.20.0222 2018	JOSEBA REZOLA ASFALTATZEA (BOMBERIAtik TXIMISTArA)	232.700,82
1 601.02.153.20.0222 2018	OKORRO (JAKINTZA IKASTOLAtik OKORRO KALERa)	65.862,42
1 601.03.153.20.0222 2018	BUSTUNTZA PLAZA	100.000,00
1 601.04.153.20.0222 2018	ESKARABILLA KOMUN PUBLIKOAK	52.000,00
1 601.05.153.20.0222 2018	ALTAMIRATIK BOMBERIARA PASEALEKUA	27.000,00
1 622.01.153.20.0222 2018	KZ GUNETA ETA ARTXIBATEGIA	60.000,00
1 643.01.153.20.0222 2018	EGUNEKO ARRETA ZENTROA PROIEKTUA	20.000,00
1 601.02.153.40.0224 2018	OBRA TXIKIAK	10.000,00 LUZATUAN 24.000 DITUGU (+10.000=34.000)
1 643.01.153.40.0224 2018	ERABERRITZEAK URDANETAN, 64.ETIK AMAIERARA ARTE	15.000,00
1 623.04.163.00.0281 2018	GARBIKETA TRESNAK ETA LANABESAK	28.978,71
1 622.01.163.00.0281 2018	KOLUNBARIOA	12.000,00
1 601.01.165.00.0237 2018	ARGIZTAPEN KUTXA ELEKTRIKOA GAURKOTU	7.500,00
1 601.02.165.00.0237 2018	INBERTSIOA HERRIKO ARGJETAN	95.135,00
1 601.01.170.00.0251 2018	AISIALDI BARATZAK	15.000,00
1 622.01.171.10.0233 2018	KAUTXUZKO TXORKOAK JARTZEA	10.000,00
1 622.02.171.10.0233 2018	PARKEETAKO JOLASAK BERRITZEA	30.000,00




Ordiziako Udala

2018IOSB0003

1 622.03.171.10.0233 2018	UREZTAKETA-SISTEMA AUTOMATIKOA LORATEGIETAN	12.899,89
1 601.01.171.20.0234 2018	ALTZARIAK	10.000,00
1 623.01.171.20.0234 2018	GALDARA-GELA	1.936,00
1 626.01.231.00.0104 2018	INFORMATIKAKO EKIPAMENDUA	2.500,00
1 643.01.231.00.0104 2018	GIZARTE-ONGIZATEAREN PLAN ESTRATEGIKOA EMAN GABEKO ZERBITZUAK (ALDUNDIA DIRU-LAGUNTZA)	17.420,00
1 622.01.323.20.0112 2018	URDANETA ESKOLAN HOBEKUNTZAK	40.000,00
1 626.01.332.10.0118 2018	EKIPAMENDUA, LIBURUTEGIA ETA BARRENAKO ARETOA	7.000,00
1 628.01.332.10.0118 2018	FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK ESKURATZEA	16.000,00
1 623.02.333.10.0133 2018	ERAKUSTARETOKO ARGIZTAPENA	1.500,00
1 623.02.337.10.0109 2018	INBERTSIOAK ZUHAIZTIN	9.000,00
1 625.01.432.00.0271 2018	HIRI-SEINALEZTAPENAREN HOBEKUNTZA	5.000,00
1 626.01.432.00.0271 2018	INFORMATIKA-EKIPOA. D'ELIKATUZ	1.500,00
1 644.01.432.00.0271 2018	APP ORDIZIAKO AZOKA	5.920,00
1 626.01.920.00. 0322 2018	INFORMATIKA-EKIPOAK ETA ORDENAGAILUAK EROSTEA	15.000,00 LUZATUAN 5.000 DITUGU (+15.000=20000)
1 682.01.933.00.0331 2018	BRUESEKO GARAJEAK EROSTEA	163.000,00 OTSAILEKO PLENOAN ONARTUTA
	GUZTIRA	1.271.164,46

KAPITAL-TRANSFERENTZIAK		
1 781.01.241.00.0116 2018	INBERTSIOAK GOIERRI ESKOLA	30.809,00
1 731.01.333.20 .0131 2018	INBERTSIOAK HERRI ANTZOKIAN	5.000,00 LUZATUAN 15000 DITUGU (+5000=20.000)
1 733.01.341.00.0161 2018	INBERTSIOEN EKARPENAK. MAJORI	295.000,00



Ordiziako Udala

2018IOSB0003

1 733.02.341.00.0161 2018	INBERTSIOEN EKARPENAK. MAJORI LEHENENGO FASEA:	172.000,00
	GUZTIRA	502.809,00

KONPROMISO-KREDITUAK

2019			
GASTUA:	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	FINANTZAKETA
5 601.01.134.00.0700 2019	ADIF Hitzarmena igogailua eta eskailerak	121.000,00	Diu-laguntzak 107.000 EJ + 14.000 aurrezki garbia
5 733.02.341.00.0161 2019	Ekarpena Majori lehenengo fasea	1.500.000,00	MAILEGUA

2020			
GASTUA:	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	FINANTZAKETA
